

# Aretxagazeta

**MARTXOAK 31**

## **Aberri Egun bateratua Aretxabaletan**



**ETA GAINERA...**

### **Ze barri?**

ASTEKO GAIA

**Udaberri  
festa /8**

BOTEPRONTOAN

**Joseba Iñurrategi,  
pilota entrenatzailea /9**

LEINTZ GATZAGA

**Alkatearekin  
berriketan /10**

**GUARDIAKOFARMAZIA**

**ZAPATUA, 30**  
FRAILE, J. Herriko plaza 10. .... 943 79 21 99  
**DOMEKA, 31**  
FRAILE, J. Herriko plaza 10. .... 943 79 85 83

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

OROKORRAK	
Almen .....	943 71 49 07
ARETXAGAZETA .....	943 79 86 21
Faxa .....	943 77 18 54
Basotxo .....	943 77 09 81
Euskaltegia .....	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea .....	943 71 18 62
Hezibide elkarte .....	934 79 31 32
Industrialdea .....	943 79 62 80
Institutua .....	943 79 79 00
Kirol etxea .....	943 71 26 28
Kultura etxea .....	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola .....	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI .....	943 79 57 40
Liburutegia .....	943 71 18 62
Loramendi EE .....	943 77 09 70
Ludoteka .....	943 79 05 81
Mankomunitatea .....	943 79 30 90
Murruxiko ME .....	943 79 93 74
Musika Eskola .....	943 79 36 50
Osasun etxea .....	943 79 74 58
Otalora .....	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa) .....	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola .....	943 77 03 77
Postetxea .....	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea .....	943 79 17 00
Saretxo .....	943 71 26 56
Taxi geltokia .....	943 79 22 33
Udal Bulegoak .....	943 71 18 62
Udaltzaingoa .....	943 71 18 63
Urats Gain .....	943 79 99 11

**UDALTAINGOA**  
Arrasate .....

**LARRIALDIAK**  
SOS Deiak .....

**MEZAK**

**ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA**  
Domekak: 11:00, 12:00  
Zapatuak: 19:30  
Lanegunak: 19:00

**SANTA RITA**  
Domekak: 09:00  
Zapatuak: 18:30  
Lanegunak: 08:00

**BASERRI AUZOETAN: ARIENTZAN**  
Domekak: 11:30

**MENDIOLA**  
Domekak: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

**ARKARAZO**  
Domekak: 12:30

**OHARRAK**

**ABERRI EGUN BATERATUA**  
Aurten ere, Abarri Eguna bateratua ospatuko dute martxoaren 31n. Honako egitaraua antolatu dute egun horretarako:

11:00- Etxaflero jaurtike-ta eta Abarri Egunaren hasiera.

11:45- Txalaparta.

12:00- Meza Nagusia

13:00- Txalaparta emanaldia

13:10- Ikurrinarekin kalejiran irteera, udaletxe-tik udaletxe zaharrera.

13:20- Ikurrinari agurra

13:30- Ikurrina balkoian jarriko dute, bertsolariek emanaldia egingo dute eta komunikatu bat irakurriko dute.

14:30- Bazkaria Makitua tabernan.  
\*Bazkarira joateko, eman izena martxoaren 28a baino lehen Arlutz tabernan.

**BASERRI-AUZOETAN, ASTE SANTUETAKO ELIZKIZUNAK**

Eguen Santutik Pazko-domekara, auzoko elizetan mezak izango dira. Eguen Santuan, Mendiolan 17:30ean eta Azatlan 18:30ean. Egubakoitz Santuan, berriz, Barkamena-ren ospakizunak egingo dituzte; Mendiolan 11:00etan eta Azatlan 12:00etan. Pazko-domekan, uraren bedeinkatzea ohiko meza orduetan izango da.

**LORAMENDIRENAGENDA**

**'NESKEN POLITA' KAFE ANTZERKIA**  
Apirilaren 19an, Kasketa Kabareta antzerki taldeak *Nesken polita* antzerki emanaldia egingo du udaletxe zaharrean, gaueko hamar eta erdietan.

**OPORRAK HARTUKO DITUGU!**  
Aste Santuko oporrak direla eta, Loramendi euskara elkarteak martxoaren 28tik apirilaren 8ra atseden hartuko du.

**ORAINDELA 7URTEARETXABALETAN**

**Berberi izeneko hitzarmena sinatu zuten**

1995. urteko martxoaren 29an, Berbari izeneko hitzarmena sinatu zuten herrian. Berbari euskararen erabilera bultzatzeko plana zen. Hitzarmen hartan herriko hainbat taldek hartu zuten parte: kultura, kirol, gazte, erlijio eta gizarte mugimenduetako taldeek, hain zuzen ere.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

**"Mozkotia"**

Pertsona txikia eta zabala.  
-Errezill aldeko mozkote batekin ein juan burrukan.



**ZORIONAGURRAK**



ARETXABALETA  
**Diiher Ganboa**  
24an, urtebete. Zorionak eta muxu handi bat, etxe-ko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Gorka Zumalde**  
24an, urtebete. Zorionak eta muxu handi bat, etxe-ko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Antonio Astigarraga**  
30ean. Zorionak eta urte askotarako, zure lagunen partetik.



ARETXABALETA  
**Miriam Urkia**  
31n. Zorionak eta urte askotarako, zure lagunen partetik.



ARETXABALETA  
**Goretti Aiestui**  
1ean. Zorionak batzorde-kideen eta koadrilakoen partetik.



ARETXABALETA  
**Gotzone Arrese**  
5ean. Zorionak eta muxu handi bat, lehengusu guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Iñaki Carrillo**  
5ean, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxe-ko guztien partetik.

BABESLEA

**Zorionak denoi !!!**

Foto

**Urkiola**

Argazkidenda

HERRIKO PLAZA 5  
20550 ARETXABALETA  
TELEF 943 79 39 20

\* ESTUDIOAK  
\* EZKONTZAK  
\* JAUNARTZEAK  
\* ENMARKAZIOAK  
\* DIGITAL LANAK  
\* KAMARAK ....

Beti karretean edo albuma dohanik !!

**Zenbaki**

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

**Aholkularitza**

Basabe poligonoa, F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA  
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68

**DOIKALSE**

**Elektroerosio lanak**

Basabe Poligonoa C-1-1  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 82 44

**MartiW**

ERIKOITZUEN ETA

**Bere bezeroen zerbitzura**

Mitarte, 16  
Tel.: 943 79 01 72  
ARETXABALETA

**GUREA**


**taberna jatetxea**

Durana kalea  
Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 20 64

**ATREBENTZIAEZPADA/ Aste Santuen egitten dien erlijio ospakizunetan parte hartzen dozu?**




**ANA MANCEBO**  
Langillie




**JUSTO MUÑOZ**  
Langillie




**YOLANDA MOLINA**  
Langillie



**FRANCISCO ESCOBALES**  
Erretiraue



**BEGOÑA ISASMENDI**  
Erretiraue



**AITOR URRUTIA**  
Langillie

Ez naz geraketan herrixen. Kanpuen be egitten die Aste Santuko elizkizunek baine nik ez dauket elixara joateko ohituraik. Aste Santuek niretako opor egunek esan gure dau.

Aste Santuen kanpora joateko ohitturie dauket, Palentziara, Cantabriara... Holako herrixetan egitten dien prozeziñuek ikustie gustetan jat, pasuek eta antzekuek.

Ez, ez dot parte hartzen. Ni Iruñakue naz eta oporretan hara joaten naz. Han prozeziño asko egitten die eta txikixe nitzenien aittekin joaten nitzen. Oiñ ez dot iñun parte hartzen.

Ez, beste erlijio batekue naz eta ez dot parte hartzen. Dana dala ez naz hemen geraketan, Caceresera joaten naz Valverde del Fresnora, eta han elizkizun batzue-tara joatea toketan jat.

Bai, herrixen geraketan naz eta Aste Santuko elizkizunetan parte hartzeko ohitturie dauket. Ez dittut, gaiñera, lehengo prozeziñuek faltan botaten elixiek be eboluzionau egin biher dau.

Parte hartu izen dot Aste Santuko ospakizunetan. Aste Santuek danetik dauko, lehenengo egunetan erlijio ospakizunetan parte hartu leike eta pazko astien oporretan fan.

**TXALOAKETATXISTUAK**



**TXISTUAK EDUKIONTZIAK BERE LEKUAN** Mankomunitateak zaborra batzeko era berria jarri zuenetik hona, hainbat kexa izan dira herrian: edukiontzien lekua ez dela egokia, ez dutela zaborra batzen... Azkena, kamioiek zaborra jaso ostean edukiontzia ez dituztela leku berean uzten. Pasatzeko toki gutxi dagoen espaloietan edukiontziaeren lekua errespetatzea oso garrantzitsua da. /M.A.

**ETABARRUAN...**

ASTEKO GAIA /4

**Aberri Eguna herrian**

Azken hiru urteetan moduan, Aberri Eguna bateratua ospatu-ko dute martxoaren 31n herrian.

ASTEKO GAIA /5

**Aste Santuko ospakizunak**

Fededunek parrokiaren eta mojen monasterioan izango dituzte Aste Santuko ospakizunak.

HURRETIK /7

**Markos Untzeta**

Markos Untzeta Kurtzebarri Eskolako irakasle eibartarrak lehen diskoa kaleratu berri du.

**ASTEKODATUA**

**4.**

**POSTUA LORTU DU AKORDEOI ORKESTRAK**


Aretxabaletako Akordeoi Orkestrak 4. postua eskuratu du Pragako Nazioarteko Txapelketan. Eguraldi eskasa izan dute, edurra mara-mara, baina hala ere pozik itzuli dira herrira.

**BESTEKEESANA**

**“** Annapurna hegoaldeko ertzetik igotzen saiatuko gara. Bide hori, 1984. urtean, suitzar espedizio batek zabaldu zuen eta ez da gehiago erabili. Annapurna estruktura oso konplexua duen mendia da eta hegoaldeko ertzeko bidetik igota, beste bideek dituzten arriskuak saihestuko ditugu. Mendiari edozein lekutatik begiratuta ere, seraks hesiak eta oso aldats okerrak atzematen zaizkio. Suitzarren bidea arrisku bako da, baina 7.300 metrotik aurrera zazpi kilometro eta erdiko ertza gainditu behar dugu, eta horrek igoera asko luzatuko du. Hegoaldeko ertzeko bideak hasierako mendian ibiltzeko era gogorazten dit, Felix anaiarekin ibiltzen nintzenekoa.

**ALBERTO IÑURRATEGI**  
Gara/02-03-23

**HERRITARRENBERBAK/ Irati Pagoaga**



*Operación...*

**A**zken boladan hau berbiau sarri-sarri entzuten dot baztarretan.

Badakit batzuk afizinoz jarraiketan dauela eta beste batzuk "obligazinoz". Jarraitzaile asko dauken berbie da; batzuk *Operación Triunfo* jarraiketan daue, eta beste batzuk *Operación Policial* dielakuek.

Konparazino bat eiten ekin naz, eta bixek antzekotasun dexente daukiela konturetu naz. Hona hamen: bixetan daz pertsonaje printzipalak; poliziak zein kantantiek, bixetan dau jueza, bixek Espaina aldetik jasoten ditugu...

Epailie da hain justu diferentzia eteten dauena. Pertsona bardine ez izetiaz aparte, einbiherra diferentie daukie. Batak puntuek emuten ditu eta bestiek aginduek eta zigorrak ezarten ditu.

Helmugie zein dan be badakigu, *Operación Triunfo*-ko irabazliek Eurovision-en akabetan dau. *Operación*

*Policial*-eko galtzailiek, barriz, kartzelan buketan dau.

Batzun zorionerako, eta bestien zoritxarrerako, hauxe da azken aldixen komunikabidien iturritik edaten douena. Hala, bata jarraiketan dauenak ezin bestie ikusi. Eta azken baten hola da dana, alde erdik

beste erdixe ezin ikusi!!! Ondio, putz eta zurrut eingo dauenik jaixo ez dalako.

Hau apur bat alde batera itxite, kaixo udaberria esan bihe dot, martxoak 22xe ja pasaute dauelako. Hala ta be, espero dot *Operación Udaberria* ez ezauketie,

*Operación Udazkena* gure herrixen ezauketie tokau zalako. Nik uste nauen urtaruen izenak beste funtzino batzuk beteten zituela; ortuko landarak noiz erein bihe dien jakitie bestiek beste, baine batek daki...

Nik hala ta be udabarriko eguzki, eguraldi on eta bestelako gauza onak ondo aprobetxetie gure dot, eta uste dot zuk be bardine eingo dozule ahal bada. Aupa, Udabarrri!!

**“Operación Triunfo-ko irabazliek Eurovision-en akabetan dau. Operación Policial-eko galtzailiek, barriz, kartzelan”**



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

## Jai denontzat

Aste Santua iritsi zaigu. Bihar Eguen Santu eguna, etzi Ostiral Santua... Elizkizun erlijiosoz beteko dira datozen egunak, eta nola ez, betiko moduan gurutze bidea egingo da Isurietara, eguraldiak laguntzen badu, behintzat. Bestelako ospakizunik ere izango da: Aberri Eguna. Aurten, Ikurrina mutiko gazte batek eramango du: **Igor Okinak**. Alkateak ere berba egingo du, eta gero bazkaria egingo dute Matikuan. Ah! Ez ahaztu etxeko balkoian Ikurrina jartzeaz. Herria kolore gorri, berde eta zuriz jantzita ikustea polita da.

Beste kolore batzuek ere eman diote bizitza herriko erdiguneari. Ikusi duzue Durana kaleak hartu duen kolorea? Oraindik ez dituzte aldazio guztiak kendu, baina itxura berria hartu du kaleak. Dotore gelditu da. Niri, behintzat, gustatzen zait. Biziagoa dago orain.

Bukatzeke, kontutxo bat. **Alberto Inurategi** datorren astean abiatuko da Nepal aldera. Azken zortzi milakoa, Annapurna, igotzeko helburua du, Jon Lazkano eta Jon Belokirekin batera. Maiatz erdi aldera pentsatzen dute tontorrerako saiakera egitea, tartean gorputza bertara egiteko denbora izango dute. Helduko zaizkigu berriak Nepaletik. Bitartean, ondo pasatu jaiok.

**POLITIKA** / Aretxabaletan Aberri Egun bateratua antolatu duten hirugarren urtea da, eta giro bikaina izango da nagusi

# Aberri Egun bateratuak Aretxabaletako euskaldunak batuko ditu martxoaren 31n

MIRARI ALTUBE

Hilaren 31n, Pazko-domekan, Aberri Eguna ospatuko dute Euskal Herriko hainbat tokitan. Alderdi politiko bakoitzak ekitaldia eta jai egingo ditu han eta hemen. Aretxabaletan, oster, herriko talde abertzaleek denek elkarrekin ospatuko dute 31ko Aberri Eguna.

Azken hiru urteetan, Aberri Egun bateratua ospatu dute Aretxabaletan. Herritarrengandik sortutako ekimena poliki-poliki errotuz doa. Horrela, alderdi politiko bakoitzak eskainiko duen ekitaldira jo beharrean, aretxabaletar gehientsuenek herrian bertan ospatuko dute egun hori.

### JENDE GUTXI, BAINA GIRO POLITA

Aberri Eguna Pazko-domekan ospatu ohi da; Aste Santuko jai egunak aprobetxatzeko, jende asko kanpora joango da, eta herria hutsik geratuko da. Hala ere, goizean goizetik jarriko dituzte Ikurrinak hango eta hemengo balkoietan, eta 11:00ak aldera jaurtiko dituzten etxafuegoek egun berezia dela iragarriko dute.

Eguerdiko hamabietan, Meza Nagusia izango da, domeka guztietan legez. Baina Pazko-domeka izateak "nagusiago" egingo du meza. Gero, udaletxean Ikurrina jaso, eta trikitilariekin batera udaletxe zaharreraino joango dira agintariak eta herritarrak. 13:20 aldera, Ikurrinari agurra



Udaletxe zaharrean agurra egingo diote Ikurrinari eta alkateak, azken bi urteetan moduan, komunikatua irakurriko du.

egingo diote, bertsolariet bertsoak botako dituzte eta alkateak komunikatua irakurriko du. Eguna jai giroan bukatzeko, bazkaria izango da Matikua jatetxean. Bazkarira joan gura duena oraindik garaiz dabil; izan ere, bihar,

hilak 28, bukatuko da izena emateko epea, Arlutz tabernan.

### ISILEAN EGINDAKO LANA

Orain dela hiru urte jai antolatzeko elkartu zen taldeak herri jai antolatu gura izan zuen, gure

euskaldun izaerak, banatu ordez, batu egingo gintuen jai, hain zuzen. Ez da samurra izango lortzea, baina talde horrek isilean egindako lanak fruituak eman ditu hiru urtean. Ea pixkanaka euskaldunok batzen hasten garen.

## LABUR

### Udalak Ur Partzuergoarekin hitzarmena egingo du, erreka egiten diren isurketak neurtzeko

Astehenean egin zuten ohiko osoko bilkuran Aretxabaletako Udalak Gipuzkoako Ur Partzuergoarekin hitzarmena egitea onartu zuen. Hitzarmen horretan esaten denez, Ur Partzuergo arduratuko da lantegiak erreka egiten dituzten isurketak

neurtzeaz. Ordenantza bat ere aterako dute, eta bertan zehaztuko dituzte ezarriko diren kontrolen, isunen eta isurketen inguruko kontu guztiak.

Osoko bilkura horretan, bestalde, Amaral enpresak Udalari lursaila lagatzea onartu zen.

### Ludoteka berria apirilerako bukatuta

Gernika plazan dagoen ludoteka berriko egokitze lanak aurrera doaz. Margotze lanak baino ez dira falta lan horiek bukatzeko, eta aste honetan kolorea aukeratu ondoren hasiko dira margotzen. Gero, barrua osatu eta egokitu egin beharko dute.

### Kepa Urrea preso bisitarik gabe

Pasa den asteburuan Kepa Urrea preso aretxabaletarrak ezin izan zuten lehengusuen bisitarik jaso. Senideek A Coruña-ko Curtis kartzelara bidaiatu zuten Kepa ikusteko asmoarekin baina azken orduan debekatu egin zuten bera ikustea.

**ZARAIA  
TABERNA**

Goizeko 5.30etatik  
zure zerbitzuan  
Tel.: 943 79 88 95

MANTEKA ANAIK

**Angelines  
AUTOZERBITZUA**

Frutan eta  
txarkuterian  
espezialitatea

Mitarte, 16 • 943 79 61 42  
ARETXABALETA

**Aretz**

taberna

Markole, 5  
Tel.: 943 79 14 67  
ARETXABALETA



**MAPFRE**  
Aseguroak

Errekabarren, 3  
Aretxabaleta  
Tel.: 943 77 11 76



**Hirusta  
Jatetxea**

Ilargi plaza 4  
943 79 06 57  
ARETXABALETA

**ERLIJIOA/** Urteroko ospakizunak errepikatuko dituzte bai parrokian bai monasterioan

# Fededunek ospakizun ugari izango dituzte Aste Santuan

MIRARI ALTUBE

Aste Santua gainean dugu eta herritar asko kanpora irtengo da. Herrian geratzen diren fededunek ospakizun ugari izango dituzte egunean hasi eta domeka bitartean. Otoitza eta isiltasuna izango dira nagusi Jesusen heriotza eta piztuera ospatzeko orduan.

Aste Santuak kristauendako daukan garrantzia ahaztuta daukate askok. Edozelan ere, oraindik jende mordoxka -jende nagusia, gehienbat- pilatzen da parrokian eta Agustindarren monasterio inguruan Aste Santuko egunei erlijio zentzua emateko.

## BOST EGUNEKO OSPAKIZUNAK

Aste Santuko ospakizunak Erramu-domekan hasi zituzten. Hala ere, egun berezi hauetako ospakizun garrantzitsuenak eguaztenez hasiko dituzte, elkarteko penitentzia ospakizunarekin. Egunean goizean, bestalde, bakar-bakar aitortzak izango dira gura duenarendako eta arratsaldean, Jaunaren Azken Afariko eukaristia egingo dute bai mojen monasterioan bai parrokian. Monasterioan ospakizunak euskaraz egingo dituzte eta parrokiakoak, berriz, euskaraz eta gaztelaniaz.

Egubakoitzean, azken bost urteetan moduan, Gurutze-Bidea egingo dute Isurietara. Gurutzea eskuan hartuta, otoitz egiten eta isiltasun giroan igoko dira fededunak Isurietaraino, eguraldiak



Egubakoitz Santu egunean, Gurutze-Bidea egingo dute Isurietara.

ARTXIBOA

laguntzen badu, behintzat. Arratsaldean, berriz, Jaunaren Nekaldiko ospakizuna egingo dute.

Zapatu gauean, Pazko-gaubeila izango da bai parrokian bai monasterioan; Jesusen piztuera ospatzen duten gaua Aste Santuko egun garrantzitsuenetakoa da.

Parrokiako eukaristian, gainera, umeak bataiatzeko aukera egongo da. Eta Aste Santua bukatzeko, hurrengo egunean, Pazko-domeka ospatuko dute.

Fedeari tartetxo bat egin gura dionak badauka zer ospatu eta non aukeratu egun hauetan.

## TXUTXUMUTXUA



## Piraguazaleak gustura Sella errekan

Orain dela bi aste bukaera izan ziren piraguazaleak Asturiasko Sella errekan. Murruxo Mendizale Elkartek antolatutako piragua irteera, eta zazpi lagun animatu ziren, tartean emakume bakarra. Cangas de Onis herrian hasi eta Arriendas herri-rainoko tartea egin zuten piraguan; guztira, zazpi kilometro. Errekak ur asko zeraman, baina ez zuten ezustekorik izan, ur trago batzuk hartu arren. Naturaz gertu-gertutik disfrutatze-ko aukera izan zuten, lo ere izarpean egin zuten-eta. /M.A.

## LABUR

### Bi ikastarotako ikasleei diplomak banatu zizkieten egubakoitzean Institutuan

Langabeendako antolatutako ikastaro bi bukatu dira oraintsu Arrasate-Aretxabaleta Institutuan: Erreminten Mekanizazioa eta Fabrikazioa ikastaroa eta Geriatria Laguntzaile ikastaroa. Denera, 24 ikasle izan dira: lehen ikastaroan 12 eta bigarrenegun, beste horrenbeste. Eusko Jaurlaritzak eta Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalek diruz lagundutako ikastaroak izan direnez, bertako ordezkariak etorri ziren ikasleei diplomak banatzera, tartean Edorta Zubizarreta Eskoriatzako alkatea.

## TXIMAK

- Ile apaindegi mistoa
- Estetika
- Depilazioa argizari epelarekin

Herriko plaza 5.  
ARETXABALETAKO  
Tel.: 943 79 83 64



LURRINDEGIA  
OPARI-DENDA

Mitarte, 18 • 943 79 38 59  
ARETXABALETAKO

Jou Diaz



Harakina

Loramendi, 1  
Tel.:  
943 79 71 69  
20550  
ARETXABALETAKO

## Taberna Berri jatetxea

Durana, 26  
ARETXABALETAKO  
Tel. 943 79 20 67



MEMESA

Industri hornidurak

Tel.: 943 71 24 11 / Fax: 943 71 21 19  
ARETXABALETAKO

## Dorleta taberna

Bezereen zerbitzura

Loramendi, 8  
Aretxabaleta  
Tel. 943 79 94 15

## Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETAKO

## KARATEA

# Erakustaldi polita egin zuen Karate Eskolak zapatuan kirol etxean

Hogeita hamabost ikasle dihardute aurtengo ikasturtean Odilo Vázquezen esanetara


MIRARI ALTUBE

Neska eta mutil, ume eta gazte, karate erakustaldi bikaina eskaini zieten gurasoei zapatuan kirol etxean. Aurten, bi talde dabilta Odilo Vázquez irakaslearen esanetara, gustura ibili ere. Irailean hasi zirenetik hona ikasi duten guztia erakutsi zuten lehengoan.

Aurten, oraindik ez du inongo txapelketatan parte hartu Aretxabaleta Karate Eskolak; hortaz, gurasoek lehenengo aldiz ikusi zituzten euren seme-alabak lanean. "Urterik urtera asko ikasten dute gaztetxoek, eta horixe erakutsi gura genien gurasoei", dio Odilok. "Txapelketetan urduri jarri ohi dira ikasleak, eta ez dute dakiten guztia ematen; erakusketetan, berriz, bai". Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak oraindik ez die uzten federatzen 13 urtetik behereko gazteei, eta ondorioz, ezin dute txapelketetan parte hartu.

**HOGETA HAMABOST IKASLE**

Hogeita hamabost ikasle ari dira momentu honetan Aretxabaleta Karate Eskolan. Sei eta hamai-



ARTXIBOA

Urterik urte izugarri ikasten dute gaztetxoek, eta horixe erakutsi zieten gurasoei.

ka urte bitarteko taldean hogeita hiru ikasle ditu Odilo Vázquezek, tartean neska bi. Bigarren taldean hamaika urtetik gorakoak batzen dira eta beste bi neska daude. Batek, gainera, gerriko berdea dauka eta aurten urdina

aterako du, momentu honetan dagoen onena.

Giro polita izaten ei da Karate Eskolan: "Nik beti esaten diet gustura etorri behar direla, beste la nekatu eta berehala utziko dute-eta", dio Odilo irakasleak.

## XAKEA

## Fran Miguel bigarren sailkatu zen Durangoko Nazioarteko Xake Txapelketan

Orain dela bi domeka jokatu zen Durangoko Nazioarteko Xake Txapelketa, eta hantxe izan ziren Fran Miguel, Esteban Romero eta Aitor Alcaide aretxabaletarrak. Jokalari bikainak batu ziren txapelketan, tartean Errusia eta Bulgariako hiru maisu handi eta beste sei bat maisu. Txapelketako irabazlea Oleg Korneev izan zen eta Fran Miguel bigarren sailkatu zen, errusiarraren atzetik.

## FUTBOLA

## Bigarren mailako erregionaleko taldeak mailaz igotzeko aukera zabalik du oraindik

Zapatuan Berako Behobia taldeari irabazi ostean, bigarren postuan dago bigarren mailako erregionaleko taldea. Hala ere, Sanpedrotarra eta Urki taldeen arteko partidua ez zen jokatu eta horrek gorabeherak izan ditzake sailkapenean. Maiatzean bukatuko da lehenengo mailara igotzeko norgehiagoka, eta UDAko taldeak igotzeko aukera handiak ditu, Martin Garai arduradunaren esanetan.

## JOKATZEKOAK

## EMAITZAK

**FUTBOLA****UDA-Pasajes**

Preferentea.

Apirilak 7. 16:30. Ibarra.

**Ordizia-UDA**

Bigarren mailako erregionala.

Apirilak 14. Ordizia.

**PILOTA****Aretxabaleta (1)**

Seniorrak.

Martitzenean Elgetan lortutako emaitzaren arabera jokatu dute edo ez finala. Apirilak 7an Bergaran.

**FUTBOLA****Gure Txokoa 2 UDA 2**

Preferentea.

**Sta. Maria Vitoria 4 UDA 0**

Gazteen Euskal Liga.

**UDA 2 Behobia 1**

Bigarren mailako erregionala.

**UDA Gazteak**

Bigarren mailako gazteak.

**Ilintxa 1 UDA 2**

Lehenengo mailako kadeteak.

**UDA 2 Oiartzun 1****Urnieta 2 UDA 0**

Bigarren mailako kadeteak.

**PILOTA****Udaberri Torneoa**

Aretxab. 14 Igeldo 22

Kadeteak.

**Beharza 22 Aretxabaleta 10**

Bigarren mailako gazteak.

**Aretxab. (2) 16 Arrasate 22**

Aretxab. (1) 22 Illunpe 8

Lehen mailako gazteak.

**Goierri 12 Aretxab. (1) 22**

Seniorrak.



# Matikua jatetsxea

KANPOTIK ETA BARRUTIK BERRITU DUGU! **ZATOZI!**

Azatza auzoa ARETXABALETA  
943 79 16 68

ARETXABALETARRAKMUNDUAN

LOREA ZABALA

22 URTE / IKASLEA/ EDINBURGH-EN (ESKOZIA)

“Edinburgh-en lan gehiago dago, beraz, agian hemen jarraituko dut oraingoz”

AMAGOIA LASAGABASTER

**T**xikitatik ingelesa ikasten ibili da Lorea. Baina gazte askoren moduan, herriko eskolatan ikasitako ingelesa bakarrik zekien. Eta nonbait horrekin konforme ez eta, Eskoziaraino joatea erabaki zuen ingelesa, behingoz, ondo ikastera. Erabaki hori joan den urtean hartu zuen Loreak, eta oraindik ez da bueltatu Aretxabaletera, beste mota bateko ikasketak egiten diharduelako han: “Ingelesa ikasteaz gainera, master bat egitera ere etorri naiz Eskoziara. Horrek esan gura du aurtengo ikasturte osoa atzerrian egingo dudala”.

Ikasketak bukatzen ditueanean, berriz, Loreak ez daki ziur zer egingo duen: “Hemen, Euskal Herrian baino lan gehiago dago; hortaz, aukera hori ikusita, baliteke denbora luzeagoz geratzea Edinburgh-en”. Horrez gain, Loreari izugarri gustatzen zaio




Eskoziak ematen dion anonimata, eta badauki hori herri txikitetan ez duela izango. Hain zuzen ere, horixe baloratzen du gehien une honetan.

Edozelan ere, etxeakoak eta herrikoak ez ditu ahazten, eta sarri etortzen da Aretxabaletera: “Hiru hilabete behin etortzen naiz etxera, lagunekin

“Parranda on baten beharra eta lagunaren falta sumatzen dut atzerrian”

eta familiakoekin egotera. Parranda on baten beharra eta lagunaren falta igartzen dut atzerrian”. Baina atsekabe hori, atzerrian egonda irabazi duenarekin alderatuta, oso erraz jasan daitekeen detailea besterik ez da: “Guztiei gomendatuko nieke denboraldi batez etxetik kanpo bizi izatea, ahal izanez gero, jakina. Oso esperientzia positiboa da. Batez ere, nor bere burua eta jendea eza-gutzeko oso lagungarria dela pentsatzen dut”.

HURRETIK



Markos Untzeta

Musikue eta irakaslie

**Kurtzebarri Eskolako irakaslie da Markos. Hala eta be, beste ofizio bat be badauko: musikue da. Oin dala gutxi, azken lana kaleratu dau: Agurrak beti dauka zapore garratza.**

**Zela hasi zitzen musika egitten?** Hamabost bat urte neukenien, musika asko entzuten neuen, eta holan deskubridu neuen mundu barri bat. Gerora, erronka moduen-edo, horreik kantuok nik neuk jotie hartu neuen, eta gitarra akorde batzuk ikesten ekin nitzen.

**Zela definduko zeuke zure estilue?** Batez be, soinu amerikaneuk eta rock klasikue gustetan jat. Hortaz, horretxekin identifikauko neuke nere musikie. Barrikuntza gutxi sartzen dot.

**Zure diskoko letrak zuriek die?** Bai. Poema bat izen ezik, beste danak nik asmautakuek die, baita musikie be.

**Zeinei abesten dutzezu?** Ba, nere istorixuek gustetan jakon edozeinei.

**Euskeraz abestie gatxa da?** Niretako, behintzet, ez. Euskaldun zaharra naz eta barruen dauket euskeriaren doiñue.

**Musika zure afiziñue da?** Oingo, bai. Egunen baten ofizio izetie ez litzake txarto egongo, baiñe Euskal Herriren gatxa da.

**Baiñe euskaldunok nahiko kantari-kek izen gare betidanik; hori galduz doiela uste dozu?** Neure ustez, bai. Gure aurreko belau-naldixek askoz gehixago kantetan euen.

**Musiko ala irakasle?** Ni, ametsetan be, kantarixe naz. Edozelan be, irakaskuntziek bixek egitten ixten dust.

**Zure ikasliek ze esaten daue maixu famosue daukielako?** Egixe esan, oin nahiko astoratute dabitz.

A.L.

NIREBIDAIAHURA/ Mari Carmen Fuensanta

Siziliara/ 1991ko maiatzetik ekainera

**M**ari Carmenek beste norabait egin gura zuen bidaia, baina arrebak gogor egin zion eta azkenean Siziliara joateko konbentzitu zuen. Orain, Mari Carmenek bere bidaia kontatzen ari den bitartean, nabaria da ez dela damutu hartu zuen erabakiarekin. Antolatutako bidaia baten joan zen Siziliako uhartera. Taldetxo bat elkartu, eta gida bat eskuetan uhar-

te osoa zeharkatu zuten; ondo baino hobeto zeharkatu ere! “Bidaia antolatua izan arren, gure taldean, atzerritarrek ez ezik, italiarrak ere bazeuden. Horrek behartu gintuen gauzak beste modua batean ikustera. Hango jendearekin harreman estuagoak izan genituen eta Sizilia hobeto ikusteko aukera izan genuen”. Horrela, Mari Carmenen esanetan, bidaia antolatueta kontatzen ez diren istorio eta kontuak entzun zituzten; istorio gehienak, esan beharra dago, mafiaren gainekoak. “Han azaldu ziguten mafiak sortu zirela beharrak azaltzen zireneko egoerak kontrolatzeko. Siziliaren kasuan, edateko ur eskasia da beharrik handiena, eta mafiak ur horren jabetza hartu zuen. Horrela, ordaintzen ez zuenak ez zeukan garbitasunerako, ureztatzeko edo edateko urik”.

Istorio bitxi horiez gain, Siziliako paisaiek ere txunditu zuten Mari Carmen. Gehien gustatu zitzaiona Erice izeneko herrirka izan zen: “Erdi Aroko herri txiki bat da Erice. Hango etxe eta kaleak harrizkoak dira eta guztia ondo zaindua dago”. Horrez gain, mendebaleko lekuak gustatu zitzaizkion gehien Mari Carmen, turistikoki gutxien ustiatua dagoen aldea, hain zuzen ere. Siziliako jendeari dagokionez, berriz, nahiko itxiak direla adierazi digu: “Turistok horren eskasa den ura gastatzen diegu; hortaz, ez zaie askorik gustatzen gu han izatea”.

AMAGOIA LASAGABASTER



Sizilia uharterko herrirka txiki bat, itsasoaren ondo-ondoan.



“Italiarren laguntza izan genuen, eta Sizilia hobeto ikusi genuen”

“Mafiak edateko ura kontrolatzen zuen Siziliako uhartean”

ARTANO akaitegia



Gosariak goizeko 7:00etatik aurrera!


Herriko plaza 3. Tel.: 943 79 62 75 ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea ARETXABALETA Tel: 943 79 01 28

Lubia oinetakoak



zapatak, zapatilak, gerrikoak eta poltsak

Mitarte 14 • 943 79 16 00 ARETXABALETA Biteri 1 • 943 79 66 53 ARRASATE

# Ze barri?

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Eguaztena / 2002ko martxoaren 27a / 74. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com

## Udaberriari ongietorria egin gura izan diote herriko Gazte Asanbladako kideek

AINTZANE GARDOKI

Joan den zapatuan, Eskoriatzako Gazte Asanbladak (EGAS) antolatuta, Udaberri Festa izan zen herrian. Triki-poteoarekin hasi zuten eguna, eta gero, gazteek elkarrekin bazkaldu zuten. Iluntzean, kontzertuak izan ziren. Mulanbo perkusio taldearekin amaitu zen festa.

Udaberri Festarekin eman zioten ongietorria herriko gazteek urtaro berriari. Ez da berria festa hori herrian: "Lehen, Intsumiso Taldeak antolatzen zuen garai honetan Antimilitarista Eguna, baina soldadutza desagertuta, Intsumiso Taldea ere desagertu egin zen herrian. Duela urte pare bat, Gazte Asanbladak hartu zuen jaia antolatzen jarraitzeko ardurara", adierazi digu EGASeko kide Joseba Gabilondok.

### TRIKI-POTEOAREKIN HASI ETA MULANBOREKIN AMAITU

Eguerdiko ordu batean, triki-poteoan elkartu ziren gazteak. Gero, 60 lagunek bazkaria egin zuten elkarrekin, eta arratsaldean, hiru kontzertuekin gozatzeko aukera izan zuten. "Egun poli-



Gazte ugari egin zioten ongietorria urtaro berriari.

ta izan zen. Herriko gazte koadrila bat elkarrekin ibili ginen. Kanpoko jendea gauean etorri zen batez ere", esan digu Gabilondok.

EGAS herriko 20 bat gazte osatzen dute. Aspaldian zinema zaharra egokitzen ari dira, gazteen topagune izan dadin. "Lanak egiten ari gara, San Pedrotarako

bukatuta izan gura genuke. Herriko gazteen parte hartzea bultzatu gura dugu, beharrezkoa da eta dagokigun lekua izateko herrian", gehitu du Gabilondok.

*"Duela urte pare bat, EGASek hartu zuen errelebua, eta jaia antolatzen hasi ginen"*

*"Zinema zaharreko lanak San Pedrotarako bukatuta izan gura ditugu"*

*"Herriko gazteen parte hartzea bultzatu gura dugu, dagokigun lekua izateko"*

## HERRITARREN HITZA / Maje Umerez

### Zozomikoteak

Oraingoan, "meteorologoa-rena" eginez, nire amamak, Azkoitian, urtero kontatu ohi zigun ipuina kontatuko dizuet. Ipuinak "zozomikoteak" izenarekin ezagutzen diren 5 egunen nondik norakoak kontatzen dizkigu.

Ba omen zen garai hartan artzain bat bere harrokeriagatik inguru guztietan ezagutzen zutena. Ardi askoren jabe omen zen eta aukera zuen guztietan isildu ere egin barik ibiltzen omen zen bere artaldearen edertasunaz berba egin eta egin. Urte hartan ere, udaberria iritsia zen jada eta gure

artzaina hor zebilen harro-harro ahoa neurri gabe zabalduta komentarioak egiten. Kontua da bere handiustez itsututa, Martxoari barre egin ziola esanaz:

"Martxoa, Martxoa, iritsi duk aurten ere udaberria, eta hi dagoeneko azkenetan hago! Baina aurtengoan ere ez duk lortu nire ardi bakar bat ere akabatzerik heure hotz eta euriekin! Izorra hadi! Ja, ja, ja!"



**"Martxoa, martxoa, iritsi duk aurten ere udaberria"**

diezazkiogun artzain harroputz horri ehun ardi eta bi begi!" Apirilak, errukituta, eskatutakoa eman zion Martxo-

Hitzok entzunda, mindu egin zen Martxoa, eta artzain gogaikarri hari sekulako eskarmen-tua eman behar ziola erabakirik, honela hitz egin zion Apirilari:

"Apirila, biribila! Bi egun eta erdi bakarrik zeuzkaat; emaikidak beste 2 egun eta erdi, eta bion artean kendu

ari eta honek, batu zituen 5 egunak aprobetxatu zituen negu osoan ez bezalako ekaitzak sortzeko. Elur, izotz, euri jasa, txingor eta haize erasoek izugarritzko uholdeak sortu zituzten eta gure artzainak bere artalde osoa galdu zuen. Eta kontatzen dute, bizirik geratu zitzaion ahari gazte bat bizkar ganean hartuta ihesi zihoala, labaindu, ahariaren adartxoak begi banatan sartu eta itsu geratu zela.

Harrez geroztik, Martxoak eta Apirilak urtero berritzen omen dute euren tratu zaharra, inori ahaztu ez dakion negua oraindik bukatu barik dagoela.

## LABUR

### Bukatu dira eski irteerak eskoriatzarrendako

Eskoriatzako Kirol Elkarteak antolatu dituen eski irteerak bukatu dira. Lau izan dira denera, azkena martxoko San Jose zubian. Giro ezin hobea izan da irteeretan, eta eskiatzeaz gain, futbol partidua jokatu eta sagardotegian bazkalatzeko aukera ere izan dute.

Udalak antolatutako Gazte Kantoio proiektuan parte hartzen ari diren gazteak ere eskiatzera joan ziren aste bukaeran. 17 urte arteko 17 gazte eta bi begirale izan ziren Astun aldean eskiatzen.



**TELEFONOJAKINGARRIAK**

**ESKORIATZA**

Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

**BESTELAKOAK**

Eskualde Ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

**OHARRAK**

**TAIZERA (FRANTZIA) BIDAIA**  
Apirilaren 1etik 7ra bitartean. Bailarako 16 urtetik gorako gazteentzat izango da bidaia. Dena den, kopuru mugatua, nagusiak ere izango dute joateko aukera. 1957a geroztik, eta fedea helburu, gero eta gazte gehiago elkartzen dira Taizen.

**ARGAZKI ZAHARRAK**  
Ze barriko erredakzioak eskaria luzatu nahi du; etxean daukazuen argazki zaharrak argitaratuta ikusi nahi dituzuen guztiok, jarri zaitezte harremanetan gurekin, 943.718621 telefonoan, edo zebarri@goiena.com

**AXTROKIRENAGENDA**

**BATZAR NAGUSIA APIRILAREN 25EAN**

Axtrokik oporrak hartuko baditu ere, apirilaren 25ean egingo duten Batzar Nagusia prestatzen ari direla esan digute. Deialdi pertsonala egingo die bazkideei.

**ERRETRATUZAHARRA**

**Herriko dantzariak, Soraluzen**

**L**au urterekin hasi ziren ondoko argazki-ko neska dantzan. Klarita Legorburu eta Rosarito Pagaldai ziren nesken irakasleak.

1973an egindako argazkia da ondokoa, Soraluzen, Umeen Egunean. Erretratuan azaltzen diren dantzariak bederatzi urte zituzten orduan. Ezkerretik eskumara, eta goitik hasita: Nekane Urtzelai, Maite Ortiz de Zarate eta Olatz Villanueva. Makurtuta: Esther Uribetxerria eta Mari Jose Azkarate. Maitek esan digu lau urterekin egin zizkieten



jantziekin luzaroan ibili zirela. Argazkia bera da horren lekuko. Soraluzen, egun hartan, izugarrizko zaparrada bota zuela gogoratzen du Maitek. Nekane eta

biak etxean hartu zituztenek arropak kendu eta txapan sikatu zizkieten, eta etxeko zapatila eta bata handi banarekin egon ziren bazkaltzen. Maitek dio garai haieta-

ko Umeen Egunek orain ez duten euskal kulturaren errebindikazio kutsua zutela. Behin, Eibarko familia batek 14 neska dantzari hartu zituen, bazkaltzeko.

**HURRETIK/ Joseba Iñurrategi · Eskoriatzako Pilota Taldeko entrenatzailea**

*“Aurten, apirilaren 28an hasiko den Herri Arteko Pilota Txapelketan parte hartzera animatuko gara”*

**I**noiz baino hobeto dabilta pilotari eskoriatzarrak bai Deba Arroko Pilota Txapelketan bai Udaberri Torneoan. Horren erantzule, neurri handi baten, Joseba Iñurrategi da.

**Udaberri Torneoan lehenengo mailako gazteak finalera heldu dira, ez da hala?**

Bai, finalera heldu eta irabazi. Zapatuan izan zuten partidua Unai Axpek eta Mikel Errartek Usurbilgo Andazpe taldeko pilotarien aurka, eta irabazi egin zuten; 22 eta 21, hortaz, txapelkunak dira.

**Txapelketan ere ondo ibili ei dira...**

Oso ondo; izan ere, ez dute partidurik galdu. Unai Axpek 16 urte besterik ez du eta oraindik asko dauka esateko.


Mikel Errarte, bestalde, lehen ere hainbat final jokatuakoa da.

**Gainerako bikoteak zer moduz dabilta?**

Ondo. Torneo horretan bertan, nagusiak 4. eta 5. postua lortzeko partidua jokatzera joan dira. Debarroko Txapelketan, bestalde, kadeteak eta gazteak finalaurrekoetan dira eta martitzenean bueltako partidua izango dituzte, lehenengoek Deban eta gazteek Elgoibarren. Ezin da emaitzarik aurreratu, baina aurreko partiduetako emaitzak ikusita -kadeteek 22-0 irabazi zuten eta gazteek 22-14-, finalean izango direlakoan nago.

**Horrela gertatuz gero, noiz izango dira finalak?**

Apirilaren 7an izango dira,



Bergaran. Aurtengo urtea, hortaz, oso ondo hasi duzue, eta beste txapelketaren batean parte hartzeko asmoa ere baduzuela entzun dut; horrela da? Bai, aurten Herri Arteko Txapelketan parte hartzera animatuko garela uste dut. Azken urteetan ez dugu parte hartu, baina aurten pilotari gazteak ere badatoz atzetik eta lehen aipatutako bi txapelketatan ondo moldatu garenez, proba egingo dugu. **Noiz hasiko da txapelketa?** Apirilaren 28an. Beste txapelketak bukatu ostean, atsedenditxo bat hartu -betiere entrenamenduetan jarraituta, jakina-, eta hilabete bukaeran hurrengo Herri Arteko Txapelketa hasiko dugu.



- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3  
Tel.: 943 71 31 29/ Eskoriatza 20540



Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita  
ESKORIATZA

**PAGALDAI**  
HARATEGIA-URDAITEGIA

Gaztainadui, 15  
Tel.: 943 71 51 97  
ESKORIATZA

## ELKARRIZKETA

JOXERRA AGIRREURRETA/GATZAGAKO ALKATEA

*“Geldi dagoena atzean gelditzen dela esaten du nire lagun batek, eta gu ezin gara geldi geratu”*

AINTZANE GARDOKI

Aste barruan herrian e-debagoiena proiektua aurkeztu dutela-eta, eta Udalak duela aste batzuk 2002rako aurrekontuak onartu zituela-eta, alkatearengana jo dugu herriko gorabeheren gainean hizketalditxo egiteko.

**Herria ibarreko “atarte” bihurtzen ari da?**

Atarte, izan bagara. Hemen egin dute Landa Garapenerako aurkezpena; orain, berriz, e-debagoiena ere hemen aurkeztu dute. Horri guztiorri ezin diogu uko egin. Agian, batzuen ustez, gure irudi bila soilik etorriko dira, baina geldi dagoena atzean gelditzen dela esaten du lagun batek, eta gu ezin gara geldi geratu.

**Aurrekontuak ere onartu ditu udalbatzak?**

Bai, eta badago zer egin.

**Esaguz eginbehar nagusiak zeintzuk diren?**

2002rako hainbat proiektu zehaztu ditugu. Besteak beste, herria Kultura ondasun gisa monumentu multzo katalogatu zuten 1997an, eta legeak adierazten digu ingurua zorrotasunez zaindu behar dela. Hori dela eta, herriko karkaba zaharrak eta Gatzaga inguratzen duen ibilbidea ere berreskuratuko dituzte.

**Zertan aldatuko du horrek herria?**

Erdigunea guztiz babestuta geldituko da. Hiru mailatan sailkatu dira etxeak: lehenengo mailakoak eliza, iturria, Indianoak



AINTZANE GARDOKI

eta Garro dira. Horiek ukitu ere ezingo dira egin, baimen eta jarraipen estuarekin ez bada. Ele-xalde, Ostatu eta herriko arkuak bigarren mailan sailkatzen dira, eta hirugarren mailan beste erakuntza batzuk sartzen dira. Horrek arau ordezkatzailen berrikuspina ekarri digu, eta herritarrek ere ezer esateko badute, izango dute horretarako epealdi bat. Itxura berria izango du herriak. Hiru karkaba zabalduko ditugu, eta lehena aurten bertan egingo dugulakoan gaude. Rosario eta Pilar kaleen arteko kalea zabaldu gura dugu.

**Besterik ere aurrez ikusi da aurrekontuetan.**

Museoan inbertsio batzuk egingo ditugu: argiztapen sistema berrituko dugu, bisita sistema autonomoa ere jarri gura genuke, gurpilaren sistema jasotzen duen maketa txiki bat ere egin gura dugu, eta herriari buruzko diaporama ere aurten eginda geldituko da. Kanposantuan ere badago zer egin.

**Herritarrendako dendarik izango da?**

Hori da asmoa. Proiektua zehaztuta gelditu da, urrira bitartean egingo dituzte lanak, eta

*“Herriko karkaba zaharrak eta herria inguratzen duen ibilbidea ere berreskuratuko da”*

*“Helburuen artean, herritarrari profesionalizatutako zerbitzua eskaintzea ezinbestekoa dugu”*

ru duzen ?

Hasteko, herritarrari zerbitzuak eskaintzea, eta profesionalizatutako zerbitzuak izatea, gainera. Batzuk aipatzearen, esan, gasa herrian sartzeko ahalegin guztiak egiten ari garela. Gizarte laguntzailea ere ezinbestekoa da herrian. Premia hori askoz handiagoa izango da urte batzuk barru. Garraio zerbitzua ere –egun ez dagoena– lortu beharra daukagu. Eta badira gehiago, baina zerbitzu profesionalizatuak eskaintzeak ere diru kopuru handiak eskatzen ditu, eta poliki bada ere, horretara jo beharra daukagu.

**Herria oinezkoendako jartzea ere badago Udalak dituen helburuen artean?**

Bai, gogoia eta asmoa bai, baina lehenik eta behin herritarrekin berba egin behar da. Erreferenduma egitea izango litzateke egokia? Ez dakit, baina proposamen batzuk egin beharko zaizkie herritarrari, eta gero, guztion artean erabakiak hartu. Gainera, lehen aipatu dudanez, herriko erdi gunea babesteko proiektuak izango du horretan zer esanik.

**Herria asko hazi da azken urteotan.**

Bai, eta badu hazten jarraitzeko gaitasuna. Laster, *Parking etxeak* deritzenak saldu egingo ditu Udalak. Ekimen publikoan, gutxienez, 30 bat etxe egiteko aukera badago. Eta pribatu mailan kopuru hori handiagoa da oraindik. Geldi dagoena atzean gelditzen bada, guk aurrera egin beharra daukagu.

udazkenerako zabalik izatea gura dugu. Denda bai, baina denda hori kafea hartzeko lekua ere izatea gura genuke. Deialdi publikoa egingo dugu laster.

**Udal Artxiboa osatzeko diru kopurua ere onartu duzue?**

Dokumentu ugari gordetzen da horrelako lekuetan. Egon, denetarik dago, baina hori guztia jaso, ordenatu eta sailkatzea ezinbestekoa da. Eta gero, artxibo historikoa ere gauzatu ahal izango da.

**Eta beste gai batzuk ere gelditzen dira aurrekontuen barne. Esaiguz zein beste helbu-**

**‘e-debagoiena’ proiektuak jende ugari batu zuen Gatzagako Gatz Museoaren inguruan.**

AINTZANE GARDOKI

Proiektu berria, e-debagoiena, aurkeztu zuten astelehenean herrian. Jende ugari batu zuen proiektuaren aurkezpenak, horren lekuko, aparkatutako auto ilara luzea. Eguraldia lagun, ekitaldira hurreratutako herritarrak ere asko izan ziren.

Luncha egon zen guztiendako, baina Sorginak emakume taldeko kideek egindako talo gozoekin, gonbidatuek gehiago disfrutatu zuten dudarik ez zen izan. Ekitaldiaren ondoren, Gatz Museoaren ikusteko aukera ere izan zen.



Herritar asko batu zen ekitaldian, eta gero, Sorgina taldeko kideek taloak banatu zizkieten gonbidatuei eta herritarrei.



Aretxabaleta eta Eskoriatzako

# Gremioen Gida

**Altube**  
elktrizitatea CB

San Migel 13 - 1D  
Aretxabaleta. 943 79 53 88

**ALTUNA** Zurgindegia

Julio Altuna

Basabe poligonoa, A-2-3  
ARETXABALET  
943 79 72 55

**TXOMIN**  
igeltserotza  
ARETXABALET

ERREKABARREN 20  
607 739 835 / 943 79 63 94

RADIO  
ELECTRICIDAD  
LEGAZPIA  
"R.E.L.E."

Denda:  
Santa Ana 17, Eskoriatza  
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 65

Tailerra:  
Santa Ana 12, Eskoriatza  
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 12

ESKORIATZA

AITZORROTZ  
elektronika

- Telebista, audio eta bideo salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak
- Informatika

Aitzorrotz elektronika Tel.: 943 79 16 10  
Otalora, 14 ARETXABALET

Hnos. SAJERAS, C.B.

**Margogintza  
Dekorativo eta  
Industrial**

San Pedro, 14 behea ESKORIATZA  
Tel.-Faxa: 943 71 47 28  
Arrasate Tel.: 943 77 16 66  
Mobila: 608 92 11 18

**PINTURAS**  
ESKORIATZA

- Pintura orokorrean
- Fatxaden pintatzea
- Iztukuak, eta abar

Olaeta 2, 1-ek. ESKORIATZA  
Faxa: 943 77 07 92. Sakelakoa: 605 772 769

Jon Axpe Oyanguren

**OYANGUREN**  
Iturgintza

Aranburuzabala 15  
ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 47 14  
606 007 369  
f.oyanguren@ctv.es

Iturgintza • Gasa • Berogailuak • Peetrolio-produktuak • limatizazioa

**L. GONZALEZ**  
PINTURAK  
Pintura orokorra eta enpapelatua

Araba ibilbidea 24, 3-D  
ARETXABALET  
686 113 581 / 943 79 65 46

**SANER**  
ITURGINTZA

Nafarroa 8, 2-A  
ARETXABALET  
943 79 64 91 / 605 71 66 92 / 629 47 72 70

**URKO**  
MANTENIMIENTO, S.L.

Instalazioen mantenumendu osoa  
Berokuntza • Gasa  
Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.  
Tel.: 943 77 19 88. Faxa: 943 79 59 97

ALUMINIOA/P.V.C.a/POLIURETANOA  
ALUMINIOA-EGURRA  
PERTSIANAK ETA OSAGAIK

Aluminios  
KURTZEBARRI  
Aluminioak

Araba Ibilbidea, 17  
• Tel.: 943 79 28 41 • Fax: 943 79 79 06  
• 20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)  
• E-mail: kurtzebarri@euskalnet.net

**GORBEA S.L.** **K21**

Basabe poligonoa A-2-5 ARETXABALET  
Telefonoa eta faxa 943 79 15 71

**ARETXABALET**  
ITURGINTZA

Durana, 16-Tel.: 79 17 53  
ARETXABALET

**J.J. ITURGINTZA**  
**IRURE**  
URA  
GASA  
KALEFAKZIOA

MITARTE 15  
ARETXABALET **943 793 187**

12.000€  
**12.000€**  
1.996.632 pezeta

- ABS
- Lau aire-poltsa (aurreko aldean eta aldamenetan)
- Direkzio lagundua
- Ateen itxiera zentralizatu urruneko kontrolarekin
- Lainotako faroak
- Control Blade atzealdeko esekidura independentea
- RDS **irradi-CDa** (aginte kontrola bolantean)



**fordfocus gama:**

Gasolina 75 ZPtik 115 ZPra (10.929 €-tik aurrera)

Diesela TDdi 75 ZPtik 115 ZPra (12.000 €-tik aurrera)

\* Prever planak barne

**ford Focus**  
Diseinu inteligentea



(Salneurri gomendagarria hiru ateko autoetara. Garraioa, BEZ, Matrikulazio Zerga eta kontzesionarioaren ekarpena barne. Gasolina Prever plana barne. Aleazio-hagunak aparte. Martxoaren 31ra arte balloa du eskaintzak.

**MUGARRI AUTOAK**

Araba etorbidea, z/g  
ARRASATE-MONDRAGON  
Tel: 943 797 564

902 442 442  
www.ford.es